



ONDARROAKO  
UDAL EUSKARA  
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/7  
Eguna: 2012-12-04  
Hasiera-Amaiera: 18:45 – 20:30  
Tokia: Batzar-gela 2

## UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

### Batzartutakoak:

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Iera Arantzamendi	Udal Euskara lantaldeko kidea
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Edurne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Gurutzne Anakabe	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Txomin L. Aramaio	AEKren, Radixu irratia eta Kafe Antzokiaren ordezkaria
Mikel Santiso	Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria
Ama Lur Bedialauneta	Hitza egunkaria
Asier Alkorta	Hitza egunkaria
Miren Lore Bengoetxea	Hitza egunkaria
Imanol Oruemazaga	Ondarroako Historiazaleak taldeko ordezkaria
Maite Rey	Batzordearen idazkaria

### Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Itsasne Murillo	Txomin Agirre ikastola

### AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiriak onartzea.
2. Augustin Zubikarai Letren Jaialdiaren IV. edizioa: Rallyaren balorazioa.
3. Abenduan egitekoak diren ekintzen berri:
  - Euskararen eguna: Ondarroako esaren txapelketa.
  - AISA ikastaroa eskaintzea 2013an egiteko
  - Irakurraldi musikatu antolatzea Kafe Antzokian abenduaren 21ean (Kirmen Uribe, Ander Lipus, Miren Gaztañaga eta musikari bat)
4. 2013rako aurrekuntua-aurreikuspena.
5. Lea-ArtiBai euskarari elkartearekin hitzarmena egiteko proposamena diru-laguntza emateko.
6. Eskariak eta galderak.



Batzar-zk.: 2012/7  
Eguna: 2012-12-04  
Hasiera-Amaiera: 18:45 – 20:30  
Tokia: Batzar-gela 2

## Esan-eginak:

### 2. **Augustin Zubikarai Letren Jaialdiaren IV. edizioa: Rallyaren balorazioa.**

**Institutuko ordezkariak:** Hasierako planteamendua denek egitekoa izan zen eta gero, azkenean borondatezkoa bihurtu zen. Orduan, eskola-orduetatik kanpo egin beharko litzateke, bere ustez. IV. edizioko planteamenduak pisu handiegia suposatu du ikastetxeentzat eta borondatez bada, Udalak bere baliabideekin antolatu beharko luke.

**Zaldupeko ordezkariak:** Beraien ustez, DBHn ere derrigorrezko curriculumara osatzeko ekintza bat izan beharko litzateke.

### 3. **Abenduan egitekoak diren ekintzen berri eman da:**

- Euskararen eguna: Ondarroako esaren txapelketa egingo da. Herriko establezimendu bisitatuenetan (taberna, janari-denda, etab.) orri batzuk banatuko dira bakoitzak bere proposamena egiteko eta gero parte hartzaileen artean lagun birentzako bazkari bat zozketatuko da.
- **AISA ikastaroa** eskaintzea 2013an egiteko.  
Aek-ko ordezkariak esan du propaganda gehiago egin behar dela: eskutitz bana etorkinei. Institutuko ordezkariak esan du emakume senegaldarren taldeko batzuk (2011-2012 ikasturtean alfabetatzea egiten aritu direnak Institutuan) prest daudela Aisa ikastaroa egiteko.
- **Irakurraldi musikatua antolatzea Kafe Antzokian** abenduaren 21ean (Kirmen Uribe, Ander Lipus, Miren Gaztañaga eta musikari bat). Kirmenek aurkeztu du bere nobela berria Bilboko Kafe Antzokian musikari eta aktore horiekin eta berdin egin nahi zuen Ondarroan ere. Txomin L.k proposatu zuen Udalean 45 minutuko inguruko irakurraldi bat egitea Udalak eta Kafe Antzokiak batera, eta Udalak onartu du; abenduaren 21ean egingo da 22:00etan eta 500 €ko gastua izango du.

### 4. **2013rako aurrekuntua-aurreikuspena.**

Batzordeburuak azaldu du gaia eta Udalaren egoera ekonomikoa azaldu lehenengo: iaz baino diru dezente gutxiago izango du Udalak Udalkutxatik (8.000.000 € 2012an eta 7.700.000 2013an). Bilduk, dena den, apustua egingo du zerbitzuei eusteko, baina egoera nahiko eskasa da. Zerbitzu asko daude Udalean, 10 bat batzorde eta hainbeste ekintza, eta hori guztia mantentzea zaila da. %15eko murrizketa egiteko eskatu du Bilduk. Euskara arlorako berak mantentzeko apustua egingo du, baina, beharbada, ez da posible izango.



Batzar-zk.: 2012/7  
Eguna: 2012-12-04  
Hasiara-Amaiera: 18:45 – 20:30  
Tokia: Batzar-gela 2

Aurrekontuaren zirriborro bat egin du eta irakurri du zer programa dauden jasota, hala nola: UEMA, hitzarmenak (AEK, HITZA eta Lea-ArtiBai Euskararirekin), diru-laguntza deialdiak (ikasleei, taldeei eta establezimenduei), Aisa ikastaroa, Irrien Lagunak harpidetza, Augustin Zubikarai (Nobela saria eta Letren jaialdia), Literatur Amuak egitaraua eta Herri hizkera. Diru-kopuruak ere azaldu ditu eta gaineratu du horiek denak mantenduko direla; baina oraindik ez dagoela azken zenbatekoa zehaztuta.

#### **5. Lea-ArtiBai euskarari elkartearekin hitzarmena egiteko proposamena diru-laguntza emateko.**

Batzordeburuak azaldu du Udalaren proposamena eta Udal Euskara lantaldeko kideak azaldu du gaia: Lea-ArtiBai euskararik hausnarketa egin du azken urteetako bidez udaletako ordezkariekin. Horren ondorioa izan da ikusi dutela herri bakoitzak bere kabuz egiten duela bere euskara plana, baina badirela ekintzak komunak. Komeni da eskualdean helburu batzuk markatzea norabide berean bakoitzaren bidearen osagarri. Proposamena da 2013an diseinatzea plan bat eta eskualdeko euskara batzorde bat sortzea teknikari batekin batzordea dinamizatzeko eta plana egiteko.

Batzordeburuak egin du proposamena: Lea-ArtiBai euskarari elkartearekin hitzarmena egiteko proposamena 5.000 €-ko diru-laguntza bat emateko.

#### **6. Eskariak eta galderak.**

HITZAren ordezkariak azaldu dute HITZAren proiektua finantzatzeko eskaera bat aurkeztu dutela Udalean. Miren Lore Bengoetxea, Amalur Bedialuneta eta Asier Alkortak azaldu dute proposamena: Nola ez den posible herritar bakoitzeko euro bakar batekin proiektua aurrera ateratzea eta eskatzen dutela 3€ biztanleko. Hala ere, eginahala egiten dutela, kalitatearen alde apustua egin dutela eta interneten ere eskaintzen dutela. Nabarmendu dute proiektuak duen garrantzia eta kolokan dagoela eta aipatu dute Bermeon eta Gernikan 2 € ematen dutela biztanleko.

Batzordeburuak esan du ados dagoela eta aztertuko dela. Bilduren batzarrera eramango duela gaia kontuan izanda batzordearen iritzia eta urtea amaitu aurretik emango diela erantzuna. Horrez gain, planteatu du ekintza bateratu bat egiteko aukera edo eskualdeari begira lansai batzuk. Diru-ekarpenaz gain, kontzientziazioan eragin behar dela.



Batzar-zk.: 2012/7  
Eguna: 2012-12-04  
Hasiara-Amaiera: 18:45 – 20:30  
Tokia: Batzar-gela 2

Iera Arantzamendik esan du, pertsonalki, uste duela proiektu estrategiko bat dela herri erakundeek lagundu beharrekoa, eta ez du pentsatu ere egin nahi Hitza barik geratzea gera gintezkeenik, zergatik eta Udalak ez duelako lagundu.

### **ERABAKIAK**

- Batzar-agiri hau onartu da: 2012-10-02koa.
- Lea-ArtiBai euskarari elkartearekin hitzarmena egiteko proposamena onartu da diru-laguntza emateko.

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua  
Leire Beitia

Idazkaria  
Maite Rey